



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

21/1999 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, udalei lurak erosteko 1999an emango zaizkien laguntzak arapetu dituena.

## ZIOEN AZALPENA

Bizkaiko Lurralde Historikoko 1999ko Aurrekontu Orokorretan (abenduaren 23ko 13/1998 Foru Arauaren bidez onetsi ziren) epigrafe bat dago udalei lurak kostu bidez eskuratzeko laguntzak emateari buruz, hartara babes ofizialen bateko etxebizitzak eraiki ahal izateko; ondorioz, laguntza haiek nola eman araupetuko duten oinarriak ezarri behar izan dira.

Hori dela eta, Hirigintza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak martxoaren 2ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, ondokoa

## XEDATU DUT

### 1. artikulua.- Xedea.

Dekretu honen xedea Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko udalei babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurak kostu bidez eskuratzeko emango dizkien laguntzak ezartzea eta haiek emateko modua araupetzea da.

### 2. artikulua.- Laguntzak.

Dekretu honetan ezarritako laguntzak itzuli behar ez diren dirulaguntzak dira.

### 3. artikulua.- Onuradunak.

Deialdi honetako dirulaguntzak Bizkaiko Lurralde Historikoko udal guztiek jaso ahal izango dituzte; udalek udal erakunde publikoen bidez (zuzenbide pribatu zein publikodunak) eta udal sozietate publikoen bidez jardun ahal izango dute. Azkenengoen bidez jarduteko, haien kapitalean Udala izan behar da nagusi.

### 4. artikulua.- Dirulaguntza jaso dezaketen jarduketak.

1. Dirulaguntza jaso ahal izango da lurra ondoren adieraziko diren beharkizunekin eskuratzen denean:

- a) Lurak hirikoak izan behar dira, urbanizagarriak edo urbanizagaiak.
- b) Lurren hirigintzako kalifikazioa babes ofizialen bateko etxebizitzak eraikitzeko modukoa izan behar da, edo bestela etxebizitza eraikitzeko egitarau publikoren baten barruan egon behar dira.
- c) Lurra kostu bidez eskuratu behar da.
- d) Eragiketak egin egon behar dira edo eraz agindurik.



- e) Eskuratzailerak udala izan behar da, zuzenean zein aurreko artikuluan aipatu diren erakundeetako baten bidez, hain zuzen ere sozietatearen xedetzat babespeko etxebizitzak eraikitzeko lurrak kudeatzea dutenen bidez.
2. Aurreko d) atalean adierazi den beharkizuna betetzeko, itundutako eskuraketetarako kontratua beharko da; lurrak desjabetzapen bidez eskuratzen direnean, balioespena finkatu beharko da banako deskabetzapena bada, eta desjabetzapena baterako tasazioko espedienteaz baliatuz egiten bada, desjabetzapen-proiektuaren behin-behineko onespena.

#### **5. artikulua.-Dirulaguntzaren zenbatekoa.**

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa eskuraketa-prezioaren %75 izango da gehienez.
2. Nolanahi ere, dirulaguntzaz gainera xede bereko beste laguntzaren bat ere jasotzen bada, denen arteko zenbatekoa ezin izan daiteke eskuraketa-prezioa baino handiagoa.

#### **6. artikulua.- Aurkeztu beharreko agiriak eta horretarako epea.**

1. Foru dekretu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatu beharreko hilabeteko epearen barruan, aipagai ditugun laguntzetako bat jaso nahi duten udalek jarraian adieraziko diren agiriak aurkeztu beharko dituzte Hirigintza Saileko sarrera-erregistroan:
  - a) Eskaera-idazkia.
  - b) Udal teknikariaren hirigintzako txostena.
  - c) Kokaera-plana, 1:5.000 eskalakoa.
  - d) Lurzatien planoak, eskuratu beharreko lurrak 1:500 eskalan mugaturik ageri dituen.
  - e) Lurren balioa eta babespeko etxebizitzak eraikitzeko gaitasuna frogatzen dituen agiria.
  - f) Jabetzaren eskualdaketa kontratuaren aldakia edo deskabetzapen-espedientearena.
  - g) Hala behar denean, eraikiko diren etxebizitzak Eusko Jaurlaritzaren edo beste herri administrazioen baten etxebizitza-planetan sartuta daudela frogatzen duten agiriak.
  - h) Hala behar denean, udalak konprometitutako ekarpena.
2. Eskabidearekin batera eskatutako agiri guztiak ekarri ezean, edota behar ez bezala aurkezten badira, udalari agindeia egingo zaio hamar eguneko epean konpon ditzan antzeman zaizkion akatsak, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.
3. Nolanahi ere, Hirigintza Sailak eskabideak ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahal izango du.

#### **7. artikulua.- Eskabideak nola tramitatu.**

1. Eskabideak Hirigintza Saileko foru diputatuaren foru agindu baten bidez ebatziko dira, Hirigintzako Zuzendari Nagusiak proposaturik eta sail horretako Zerbitzu Juridikoak eta Hirigintzako Zerbitzu Teknikoak txosten bana egin ondoren.
2. Aurkezten diren eskabideak ebazteko epea bi hilabetekoa izango da gehienez, 6. artikuluan agiriak aurkezteko ezarri den epearen mugaegunetik zenbatuz. Hala ere, epe hori luzatu egin ahal izango da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.2. artikuluan ezarritako balizkoa gertatuz gero.



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

21/1999 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, udalei lurak erosteko  
1999an emango zaizkien laguntzak arapetu dituena.

Hasierako epea eta, hala denean, luzatutakoa berariazko ebazpenik eman gabe igarotzen bada, eskabideei gaitziritzi zaiela ulertuko da.

3. Interesaturiko udalek edo Hirigintzako Foru Sailak eskaturik, laguntza eman izana administrazio-agiri bidez formalizatu ahal izango da, bi alderdiek bereganatuko dituzten elkarrekiko konpromisoak agertarazteko.

#### **8. artikulua.- Laguntzak emateko araubidea.**

Dirulaguntzak jarraiko irizpideak kontuan izanez emango dira (garrantziaren arabera jarri dira):

1. Burututako lur-eskuraketek lehentasuna izango dute konprometitutakoan aldean.
2. Eskuraketen artean (burututakoak zein konprometitutakoak), oraintsukoek lehentasuna izango dute zaharrenean aldean.
3. Lehentasuna izango dute plangintza indarreko legeriara ongien moldaturik dutenek edo, hala denean, berrikuspen-fasea ongien beteta dutenek.
4. Lenentasuna izango dute Eusko Jaurlaritzaren edo beste herri administrazio baten herri etxebizitzaren egitarauaren batean sartuta dauderen lurrek.
5. Lehentasuna izango dute udal ekarpenik handiena dutenek.
6. Eskaera sarrera-erregistroan hartu den egunaren hurrenkera.

#### **9. artikulua.- Dirulaguntza ordaintzeko era.**

1. Dirulaguntzei buruzko ebazpena ematen duen foru aginduan lehendik eginda dauden lur-eskuraketetarako laguntzak ordaintzeko proposamena ere agertuko da.
2. Lurak eskuratzeko laguntza eman eta lurak eskuratzen ez badira, laguntza ordainduko bada, lurren jabaria udal onuradunari eskualdatu zaiola frogatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira. Agiriok Hirigintza Sailean aurkezteko epearen mugaeguna aribideko urteko abenduaren 15a izango da. Egun horretan udal onuradunak oraindik frogagiririk aurkeztu ez badu, emandako dirulaguntzari uko egin diola ulertuko da.

#### **10. artikulua.- Arau orokorrak.**

Dekretu honen hizpide diren dirulaguntzak bertan xedatutakoaren eta Bizkaiko Lurralde Historikoko herri dirulaguntza eta laguntzak arapetu dituzten arau orokorren arabera eraenduko dira.



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Hirigintza Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Urbanismo

21/1999 FORU DEKRETUA, martxoaren 2koa, udalei lurak erosteko  
1999an emango zaizkien laguntzak arapetu dituena.

## **XEDAPEN ERANTSIAK**

### **Lehenengoa.-**

Hirigintza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio dekretu honetan xedatutakoa betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

### **Bigarrena.-**

Dekretu hau oinarri hartuta eman daitezkeen laguntzen gehieneko kopurua 200.000.000 pezeta (1.202.024,21 euro) da. Horretarako, aurrekontu-zuzkidura jarri da 1999ko aurrekontu-ekitaldian: 430201 egitaraua; 732.99 kontzeptu-azpikontzeptua; 11.03 organikoa; 01457 agindu-zenbakia.

## **AZKEN XEDAPENA**

### **Bakarra.-**

Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

**HIRIGINTZAKO FORU DIPUTATUA**

Josu Montalban Goicoechea

**DIPUTATU NAGUSIA**

Josu Bergara Etxebarria